

Espainiako Doktoreen Errege Akademiaren ohorezko aipamena Javier Plouri

Javier Plou CIC biomaGUNEko doktoratu ondoko ikertzaileari 2022ko Ikerketako RADE sarietako bat eman diote, Zientzia Esperimental eta Teknologikoen arloan. Espainiako Doktoreen Errege Akademiak ohorezko aipamena egin dio Plou doktoreari, bere tesiagatik: “Label-free monitoring of tumor models by surface-enhanced Raman scattering”. CIC biomaGUNEko [Bionanoplasmonika Taldean](#) egin du tesia, Ikerbasque irakasle Luis Liz Marzán eta CIC bioGUNEko Arkaitz Carracedoren zuzendaritzapean.

Gainazalean hobetutako Raman espektroskopiako (SERS) teknika erabiliz zelula-ereduak monitorizatzea izan du ardatz Plou doktorearen ikerketak. Tesian garatutako teknologiek bi helburu izan dituzte: batetik, tumore-metabolismoa ulertzeko prozesuan aurrera egitea, laborategi-eskalan tumore-ingurunea birsortuz, eta, bestetik, hori egitura plasmonikoekin integratzea, artifizialki sortutako tumore-ereduak SERS bidez aztertzeo.

RADE sariak bikain cum laude kalifikazioa duten eta bikaintasun zientifikoa eta izaera berritzailea erakutsi duten tesiak saritzen dituzte. Sari hauen helburua ikerketa bultzatzea da, eta, batez ere, doktoretza-tesi bat egiteak zer lan neketsu dakarren saritzea.

[Doktoreen Errege Akademiak](#) diziplina anitzekoa izatea du bereizgarri; izan ere, jakintza-alor akademiko guztietako doktoreek osatzen dute, arlo zientifiko, tekniko, humanistiko eta sozialetakoak. Diziplina anitzekoa denez, Errege Akademia honek kulturarekin eta lanbideekin lotutako alor orokor eta espezifikokoak lantzen ditu, bere hamar ataletako bakoitzaren lan zehatzean.